

ENADIADKA

NONONOZ AITXITXA EDO AMAMARI ENTZUN DOUTSEGU:

"GAURKO UMIK EZ DAKIXE OLGATZEN.

TRASTUA TRASTUAN GAIÑIAN TA GEHIXAO ESKATU.

PARE BAT ASTERA ASPERTUKO DIA TA KITXO!


GURE UME DENPORAN HARRAPAU BAGENDUZAN!

HUTSAKIN OLGATZEN GENDUAN!"

"Esaten dotsut, automobilik bez ez zeuan orduan Ermuan, ta danian olgatzen genduan. Mendixa be oiñ baiño urrago zeuan. Hor aurreko etxiok, landak eta sagastixak izandako lekuan ein zitxuezen. Eskolia be eskola eskolia izaten zan, ez oingo ume koitxauen moduan, dana akademixia ta ikasi biharra. Amaitxu bai eskolia, ogi txataltxo bat hartu ta aide! Hango antxitxiketiak ta alkarri harrapau biharrek ez zeukan amairik!"

Domketan, denpora onakin, basora juaten giñan. Arbolen orrixak jaso, kiñarriakin lotu ta sonbreruak eitxen genduzan. Harek arbolen adarrak zartau, ondo heldu ta "txibirixan" eixia demasian gustatzen jakun. Adarriori apurtzia suertau ta takateko ederra hartu be bai! Alkarri harrika be eitxen genduan ta makiñatxo sagar ta intxaur ohostutakuak gara. Akorduan daukat, sagar lapurretan harrapau ta baserritxarrek emondako astindua. Egunetan be euki neban atze partia bero bero einda. Zenbat kome-rixa!

Eurixa eitxen zebanian, guardasolik ez ba guk sasoi haretan, ta ez busteko peoraik peora ibiltzen giñan. Oin, aldabia jo bako peoraik ez genduan ixten! Jo bai, ta bertara bateronbategen aurretik ezkutatzia izaten zan gauzia. Dana dala, ezkutatzera olgatzeko beste modu batzuk be bagenduzan. "Poteka" ibiltzia zan



Aspaldiko Sallabenteko Ikastetxeko umiak.

bata. Lurrian zeuan potuari batek ostiko bat emon ta urriñera jaurti bihar izaten zan. Bixen bitxartian, beste danak ondo ezkutatzeko arduratan zebizen, (aukera itzela zeuan etxien barrukaldian ta baserrixen sabaixekin). Baina "Enadiadeka" ibiltzia zan gehixen gustatzen

jakuna. Herriko ume danok olgatzen genduan ta ezkutauta gengozenian

"Enadiade, su mar
tres novios en el mar"

kantatzen genduan ta sokia zaintzen gertatzen ziranak

"Otros tres en busca van"


kontestatzen zoskuen. Sarritxan arratsalde osua emoten zebe gu topau eziñik. Zerak topauko giñuen; hasi bai antxitxiketan ta Artarrairaino juaten giñan ezkutatzera! trankil gaiñera, "hona ez dator iñor".

Zorionak!

JATETXE-BAR
ZUKUSU

EUSKAL SUKALDARITZA
Jaunhartzak, Bataioak, eta abar

Gipuzkoa Etorbidea, 8 • ☎ (943) 17 00 18 • ERMUA




optika
itze

Probaleku, 7

Tfnoa. 17 46 71

AGUIRRE KIROLAK

**BIZIKLETEN
KONPONKETA eta SALMENTA
(ORBEA eta ZEUS aseguruaz)**



Bizkaia Etorbidean, 11
Telefonoa 17 52 02

ERMUA

Honekin kantsatzen giñanian bedartxuekin "afariketan" eitzen genduan. Hamaika tripakada eindakuak gara bedar hutsez pres-tautako jatorduekin!

Kale erdixan guk asmautako "teatrak" eitzen genduzan.

Kanikekin edo intxaur denporan intxaurrekin, "potxilika" ibiltzeko ohitura haundia genduan. Izaten zan zulo bat ein ta intxaurra "potxili" horretan sartzen ahalegintzia. 2,4,6 edo nahibeste intxaurrekin jokatzen zenduan. "Pares" esan ta "potxili" barruan holantxek geratu ezker, danak irabazten zenduzan. Oin, 3,5,7... intxaur sartu ezker, zulo barrukoak ta eskuan zenduzan danak galtzen zenduzan.

Txakur haundia potxili barrutik tronpiakin nork lehenago etarako be ibili izan gara.

Habilidadade haundiko beste bat "tokara" izaten zan. Kutxillo bat tente ipintzen gen-

ta Aste Santuan Trabaku aldian eitzen genduan "txirikilletan" neska ta mutil.

Gure ume denporako joku batzuk ointxurarte jokatu izan dia. "Astoka" zeu ibilitakua izango zara, seguruenik. Eitzen genduan makurtu, burua aurrekuaren hankartian sartu ta hillara luze bat ein. Segixan beste taldekuak haren gaiñera salto eitzen zebe ta azkenak "txorro morro piko tallo ke" esaten zeban. Berba bakoitza hatzamar bat zan, ta azpikuen aurrerena euanak ze hatzamar zan asmatzen bazoutsan bere talde guztixa makurtu ta "asto" modura geratu bihar zan.

Ah!, ta "tortolosoetara". Bildotsaren atzeko hanken belaun aldeko hazurtxuak erabiltzen genduzan. Alde bakoitza diferentia zanez bere izena zeukan: "apone atoro akulo asajo". Pelotia aidera bota ta barrio eskuratzan gendun bitxartian, tortolosak tokatzen zan aldera ipintzen ahalegintzen giñan, gero hartu ahal izateko. Kolore bizixekin pintatzan genduzan. Bateron batek bentanaren bat



Neska talde bat bedar ta lorakin olatzen.

duan lurrian ta urriñetik burdiñezko txapa bat dzi! bota ta ha kutxillua etzun ein bihar izaten zan.

Ah! ta ez pentsau "soka saltuan" ez gendun eitzen. Eguerdiosetik illuntzerarte salto, salto ta salto egoteko kapazak giñan. Akorduan daukat ondiñok umetan ikasitxako Txomiñen kantu ha:

"1,2,3 ta 4, Txomiñek andria falta dau

Txomiñek dauka dendia

sagar ustelez betia" ta kanpora.

"Diabolua" manejatzen be artistak zeuzan, hari aidian bueltak eta bueltak erañez ibiltzen zianak. Neu be "txirikilletan" ez nintzan makala!. Makilla batekin beste makilla bat jo ta urriñen bialtzia zan. Gitxitan irabazi zoustien. Zenbatetan indarran indarraz, makillaren bat apurtu izan doten. Gehixao esango dotsut gaiñera: Garizuma osuan

pintatzen dihardula enterau ezker, gure tortolosak hartu ta pintatzeko eruaten geuntsezan.

Lurrian kuadro bat ein, harri bat bota ta hanka kojuan kuadro bakoitzetik harrixa etaratzan makiñatxo arratsalde emondakuak gara "txintxurrian"! "Estanpetan" ekinaldixa ein da gero be eskua gorri ekartzen genduan etxera. Bai, hori da, gaur egunian "kromoetara" deitzen jako.


Ene, zertara ez! Aspertzia behintzat ez genekixan zer zan. Egixa esanda, hutsakin olatzen genduan!"

Estibalitz Gonzalez

Eskerrik asko Maria Bengoetxea, Joseba Idigoras, Hipoli Ugarteburu, Lukre Izagirre, M^a Luisa Urreta, Iñaki Galparsoro eta Javier San Ildefonsori.

HARATEGIA - URDAITEGIA

P. ARAMBERRI



- * Bertoko txahala * Urdai egosia
- * Idi txuleta * Etzeko txorizua
- * Berton hildakoa * Txistorra

Kantabria, 1 Tfnoa: 17 64 65



**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

SAN ANTONIO

Izelaieta, 40 Tfnoa. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tfnoa. 17 38 40

ERMUA

ELUR

ESTETIKA • EDERGINTZA

- Behin betirako depilazioa (Epilaterm metodoa)
- Gorputz eta aurpegi tratamenduak

Goienkale, z/g. • Telefonoa: 17 60 52